

Don Sancho escribe á su hija:
 —«Hija, en esa soledad
 avezada á la mi corte
 de tristeza morirás!
 Con el honrado marido
 ven, hija, á te solazar.»
 Y responde al rey la noble
 señora de Muncharaz:

—«Oh padre, el mi señor padre,
 dejadme vivir acá,
 que reinar en corazones
 es el más dulce reinar.
 No estoy triste, no, el mi padre,
 que en aquesta soledad
 Dios y el marido y los hijos
 santa alegría me dan.»

ARRANTZALEA ETA ARRAYA.¹

Askotan oi bezala,
 Jaan zan ibaiera
 Bein batean gizon bat
 Arrantz egitera:
 Ozta amuaz zuen
 Ur gaña ikutu,
 Arrai chiki pollit bat
 Zuen arrapatu.
 Bazebillen zinzillik
 Saltoca amutik,
 Baña ez zan iñolaz
 Iges egiterik.
 Etsi zuen orduan
 Chit amorraichoak,
 Esaten omen zuen
 Amutik gaiñoak;
 ¿Zertako nazu zuk ni
 Chiki char gaztea?
 ¿Nola nai dezu zure
 Tripa betetzea?

Urte biko ibaian
 Utzitzen banazu,
 Andi eta gizona
 Atzemango nazu:
 Orain berdiñ, egia
 Garbi esateko,
 Ez naiz agin-tarte bar
 Zuri betetzeko.
 Amorraichoak zuen
 Ustez arrazoya;
 Gero izango zuen
 Obea sasoia:
 Baña arrantzaleak
 Eskuan arturik,
 Eranzun omen zion:
 Aurrekoetatik
 Chit errepain eder bat
 Ikasi nian nik:
 On dek ik aditzea
 Gaur nere aotik:

(1) Samaniego-ren ipuiak euskerara itzuliak.

Obea dek eskuan
 Seguru choria,
 Ez airian dabillen
 Egazti andia:
 Oakit paderara,
 Oakit iñillik,
 Esperantzak ez oi dik
 Betetzen triparik;
 Perrejill-tipulakin
 Olio tartean,
 Igari egingo dek
 Prejitu artean.
 Arrantzalearentzat
 Ez da zer esanik,

Zerren gizonarentzat
 Jaunak ala nairik,
 Dirade abereak,
 Chiki ta andiak;
 Baita ere arraiak,
 Eta egaztiak;
 Bestela izango zan
 Chit kupigarria
 Emen ikusten degun
 Amorraik chikia;
 Gaizki dirudiena
 Da arrantzalea,
 Gaiñoaz far-egiñaz
 Ala egotea.

LEOIA ZARREZ ILTZEN.

Leoi guztiz andi bat,
 Ez ill, bai illean,
 Luze-luze etziñik
 Zegoan lurrean:
 Urteen zamak zeukan
 Ezin iguiturik,
 Bada ez zan arkitzen
 Argan beste miñik.
 Orruaz mendiz-mendi
 Zanean len bizi,
 Abereak zebiltzan
 Argandik igesi:
 Bat bakarrika ez zan
 Guztien artean,
 Ichorongo zionik
 Iñolaz bidean.
 Orain ikusirika
 Etziñik lurrean,

Esan dedan bezela,
 Ez ill, bai illean,
 An dijoaz lasterka
 Chiki ta andiak,
 Eta ito nai dute
 Gaiñoa guztiak.
 Zitalen kontua da,
 Gaiñoa danari
 Egin nai izatea
 Farra eta irri.
 Gizon prestuak ez du
 Onela pensatzen,
 Gaiñoenari dio
 Geiena laguntzen.
 Onetan nai dutenak
 Artu lezioa,
 Irakurri bezate
 Ebanjelioa.